



15 minutuko hiria irisgarritasun ikuspegitik



Ira. 12 2024

Kod. A07-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Workshop

Data

Ira. 12 2024

Kokalekua

Igartzako Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

15 minutuko hiriaren kontzeptua giza eskalako proposamen bat da, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin, hirigintza eredu berri bat bilatzen duena. Horrela, pertsona ororen beharrak asetzeko zerbitzu guztiak etxetik abiatu eta 15 minutuko tartean kokatuko lirateke mugikortasun jasangarria erabiliz, hau da, oinez edo bizikletaz.

Baina 15 minutuko ibilaldia edo bizikleta bidezko paseotxo ez da berdina pertsona ororentzat, badira mugikortasun aktiboa praktikatzeko zailtasunak dituzten pertsonak adin, desgaitasun, gaixotasun edo bestelako faktore mugatzaileengatik eta gure hiriak gai izan behar dira hauen zailtasunak arintzeko.

Helburuak

Mugikortasun urriko pertsonak oinez desplazatzeko dituzten zailtasunak lehen pertsonan bizitzea.

Ikasle, hirigintza aditu, ordezkari publiko eta eta, oro har herritarrak sentsibilizatzea, hiri inklusiboagoak eta atseginagoak sortzeko.

Mugikortasun urriko pertsonen autonomia mugatu dezaketen hiri-elementuak identifikatzen ikastea.

Antolakuntza



Beasaingo Udala

Zuzendaritza



Adur Ugartemendia Leunda

Beasaingo Udala


Adur Ugartemendia Leunda, Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan formatutako Arkitektoa da (2011) eta Zuzendaritza Komertzial eta Marketing-ean du Unibertsitate Masterra - UDIMA (2016). Halaber, Hirigintza Ekologikoan eta Hiri eta Toki Jasangarritasunaren Estrategian prestakuntza du Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (2012). Baita Mugikortasun Digitalean ere, Berlingo Unibertsitate Teknikoaren eskutik (2024). Hainbat urtez eraikuntza industrializatuko enpresetako postu komertzialetan aritu ondoren, 2021an jardun publikora egin zuen jauzi Beasaingo alkaterode bilakatuz. Mugikortasunarekin lotutako jardunaldi desberdinen zuzendari izan da 2022tik, UPV/EHU-ko Uda Ikastaroen barruan, baita Europako Batzordearen CIVINET egitasmoaren enbaxadore ere, hiri jasangarrien sustapena bultzatzen duen programa.

Irakasleak



María Teresa Baquero Larriva

Cuencako Unibertsitateko (Ekuador) arkitektoa eta Hiri-berroneratze eta Jasangarritasunean doktorea da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan. Gaur egun, ABIO ikerketa-taldeko kide da, UPCko Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Sailaren barruan, "Accessibility Planning for the 15-Minute City (ACC < 15') proiektua garatzen ari delarik. Hurbiltasun hiri ereduen inklusibotasunean eta ekitatean aztertzean zentratzen da bere lana, bai eta biztanleria-talde guztien beharrak integratzeko moduan ere, adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak barne, hauen beharrak politika eta plangintzen barruan txertatuak izan daitezzen. 14 argitalpen baino gehiago ditu, horien artean azpimarratzekoa da " $\pm$ 15-Minute City: Human-centred planning in action Mobility for more liveable urban spaces", EIT Urban Mobility erakundearentzat garatutako ikerketa-proiektua, Technical University of Munichen egindako egonaldiaren eskutik.



Alba Ramírez Saiz

Alba Ramírez Saiz doktoratu aurreko ikertzailea da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan, eta urritasuna duten pertsonen mugikortasun jasangarriaren inguruan garatzen du bere doktore-tesia, hurbileko testuinguruetan. Arkitekto urbanista da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan, eta Irisgarritasun Unibertsaleko espezialistaren ziurtagiria lortu zuen Madrilgo Arkitektoen Elkargoan, A+ kalifikazioarekin. Mugikortasunari eta hirigintza inklusiboari buruzko irakaskuntza eman du Rey Juan Carlos Unibertsitatean, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan eta Municheko Unibertsitate Teknikoan. 22 artikulua zientifikoren egilea edo egilekidea da, 5 ikerketa-proiektutan parte hartu du, nazioarteko proiektuak barne, eta mugikortasun inklusiboko proposamenak dituzten mugikortasun-berrikuntzako bi lehiaketatan lehen saria jaso du (UP4 Hackathon Movilidad Inteligente 1. edizioa eta Ford Fund Smart Mobility Challenge 2024).

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2024-09-12 ARTE
Okororra	0 EUR

Kokalekua

Igartzako Jauregia

Igartzako Monumento Multzoa. Peategi z/g. 20200 Beasain

Gipuzkoa